

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **1h 10 min** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa dauzka. Biak egin behar dira. • Bi irakurgai eta guztira 25 item. • Lehenengo ariketan item bakoitzak 1,6 puntu balio du; bigarrenean 0,6 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 750 hitz gehienez. 	30 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Ariketa bakarra egin behar da eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	40 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketa** horretarako eman zaizun **aparteko orrian**.
- Azterketa-**koaderno hau** ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderei.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

NEGARRA

Bizitzako lehen adierazpena da negarra. Gizakiak jaiotzean egiten duen lehen gauza. Horrek erakusten du oso naturala eta beharrezkoa dela. Denborarekin, baina, negarrak esangura negatiboa hartzen du, nahiz eta pozez negar egitea ere posible den. Adinean gora egin ahala negar egitea, ordea, gaizki ikusita dago gaur egungo gizartean. «Gure kultura-ideologia hegemonikoaren barnean, negar egitea ez da baloratzen; lotsatu eta ezkutatu egiten gara», zehaztu du Maria Zapata antropologoak. «Hiperzoriontasunaren» gizartea da gaur egungoa, hots, soilik pozik, kontentu edo zoriontsu egotea onartzen da giza baliotzat: «Minarekin loturiko dena tabu bilakatu da».

Psikologoek diotenez, negarra gorputzaren erreakzio natural bat da, askapen bat, fisiologikoa. Arrazoi desberdinengatik sortzen dena. Ez da nahita egiten den zerbait. Berezkoa da. Gorputzaren behar bat dela dio Itziar Bartolome hezkuntzaren psikologian adituak: «Doministiku edo aharrasua egiten dugun bezala, negarra ere maila horretako gorputzaren beharra da». Negarraren onurak haiek direla dio Bartolomek: fisiologikoki estres-maila eta min fisikoa gutxitu egiten dira; arnas-erritmoa orekatzen da; begiak garbitzen ditu; adrenalina- eta magnesio-mailak erregulatu egiten dira; eta efektu lasaigarria daukaten hormonak isurtzen dira. «Horrez gain, negarrak gure izaera ulertzeko ate bat zabaltzen digu. Aukera ematen digu geure burua ulertzeko eta zerk egiten digun min ikusteko».

Psikologoek diotenaren aurka, Zapatak dio ez dagoela emozioak adierazteko modu unibertsalik, hau da, inola ere ez dela pertsona guztietan berdin gertatzen, eta emozioekin unibertsaltasunean erortzea oker larria dela uste du. Zer sentitzen den, nola sentitzen den, nola izendatzen den, emozio bakoitzaren esanahia, adierazpena, kulturatik eta historiaren garapenetik igarotzen dela dio antropologoak. Gaur-gaurkoz, Zapatak ez du uste emozioak, barrea eta negarra, adibidez, garrantziari dagokionez, maila berean jarriko direnik. Halaber, sare sozialak jarri ditu horren erakusgarri: «Sare sozialetan soilik gure aurpegi ona erakusten dugu». Azken mende erdian, gizartea zoriontasunaren gizarte bilakatzen ari dela uste du. «Kulturalki ondo egotea baloratzen da, zoriontsu eta pozik». Halaber, negarrari loturiko prozesu oro, eremu intimoetara eta ahal den neurrian, eguneroko tokietatik urrutira mugatu dela ohartarazi du.

Negar egitea, barre egitea bezala, garrantzitsua eta beharrezkoa da, Bartolomeren ustez. Edozein izaki, negarra entzuten duenean, larritu egiten da, eta Bartolomek ohartarazi du nork bere buruari min egiten diola negarra espazio intimoetara mugatzen badu eta sozializatzen ez badu larritasunik ez sentitzearren. «Negarra sufrimenduari, minari, amorruari lotuta daukagu, eta, horregatik, deseroso sentiarazten gaitu. Negarrari libre uzten diozunean, aldiz, egoera aldatu egiten da». «Negar egite hutsagatik ez diogu inori kalterik egiten, nahiz eta ingurua ezeroso sentitu». Kontrako mezua jaso arren, negarra ez da inorentzako eraso, eta ez du inor ahulago egiten, Bartolomek nabarmendu duenez. «Negarrak indartu, sendatu eta lagundu egiten digu».

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

- 1. Zer gertatzen da gaur egungo gizartean negarrarekin?**
 - a) Hobeto ikusita dagoela adinean gora goazela.
 - b) Ezinezkoa dela pozez negar egitea.
 - c) Ez dela behar bezala onartzen.
- 2. Zer diote psikologoek negarraz?**
 - a) Berezko ez dugun erreakzio naturala dela.
 - b) Apropos egin dezakegun zerbait dela.
 - c) Gorputzak duen beste behar bat dela.
- 3. Zein da negarraren onura?**
 - a) Estresa handitzen duenez, arnas-erritmoa bizkortzea.
 - b) Gure izaera nolakoa den ezagutzen lagundu ahal izatea.
 - c) Adrenalina erabat gutxitzea, efektu lasaigarria baitu.
- 4. Zer dio Zapatak emozioen unibertsaltasunaz?**
 - a) Ez dagoela emozio guztiak adierazteko era bakarra.
 - b) Gure gizartean emozio guztiek garrantzia bera dutela.
 - c) Emozio guztiek modu berean eragiten digutela guztioi.
- 5. Zer adierazi du Bartolomek negar egiteaz?**
 - a) Beharrezkoa den arren, ingurukoei kalte egiten diegula.
 - b) Ez gaituela eroso sentiarazten, minarekin zerikusia baitu.
 - c) Sozializatzen badugu, geure buruari min egin ahal diogula.

2. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

HAURREK ERABAKITAKO JOLAS-PARKEA

Pasaiako Udaleko zerbitzuetako langile eta udal-teknikari, guraso eta haurren artean Donibaneko Basoa parkea **6** dute auzolanean. Haurren irudimenari bide ematen dion jolas-parkea sortzeko proiektu honetan Ipar Amerikako indiarren *tipi*-a eta *hogan* etxola, hari-eskailerak, egurrezko elementuak eta sokak ipini dituzte. Jolas-eremu batzuk egin gabe geratu badira ere, hurrengo egunetan jarriko dira, **7**, lur-azpiko tunela, ping-pong mahaia eta txirrista. **8**, parkean txakur-kakarik onartzen ez dela adierazteko eta haurren jolas-eremua dela **9** kartelak jarri dituzte.

Donibaneko Basoa parkerako parte-hartze prozesua 2019ko azaroan abiatu zuten Pasaiako haur eta nerabeek, Haur eta Nerabeen Eskubideen Sailak **10**. Haurrek parte-hartze organoan proposatu zuten Donibaneko jolas-eremua egokitzea, eta haien interesetik abiatuta, prozesuan aukera izan dute J.J. Otaegi plazaren eta frontoiaren arteko eremu horretan zer-nolako parkea nahi zuten erabakitzeke. Esan bezala, azaroan hasi zen parte-hartze prozesua eta, guztira, sei hilabeteko **11** izan du. Apirilera amaitzea zen asmoa udarako parkea **12** egoteko. Parte-hartze prozesua hiru fase ezberdinetan **13** da: diagnostikoa, diseinua eta sorkuntza bateratua. Lehendabizi, haurrekin nola jolasten den **14** gain, eremuaren inguruko azterketa sakona egin da. **15**, jolas-eremurako zein jolas mota, jolas-elementu eta behar zituzten aztertu da. **16**, haurrek jolas-eremua diseinatu dute, eta sorkuntza bateratu bat egin da, non teknikariek eta haurrek elkarrekin azken itxura nolakoa izango den **17** duten.

Haurren irudimenari bide ematen dion jolas-eredu berria **18** helburuarekin, eraiki den parkeak orain artean zeudenetatik oso **19** izan nahi du. Elementu naturalek (enborrak, harriak, harea, belarra...) eta egurrean egindako egiturek garrantzia **20** dute, lur-eremu horretan baso bat sortu nahi izan baitute. Elementu naturalak **21** dituen basoak aukera handiak eman ditu Pasaiako haurrek diseinatutako jolas-parkearen proiektua aurrera ateratzeko.

Haurrak, lehen aldiz, espazio publiko bat diseinatzen jarri izana esperientzia aberatsa izan da eta beren **22** entzun eta errealitatera eramatea lortu da, hau da, haurren ametsetako jolas-parkea egia bihurtzea. Pasaiako Udalaren *Eskubidean* ekintza-planaren baitan **23** prozesu parte-hartzailearen ondorioz sortutako basoa 6-12 urte bitarteko haurrei bideratuta dago. Prozesuan zehar behin betiko proiektuaren **24** publikoa egin zuten haurrek, gurasoei eta komunitateari zuzenduta, eta prozesu osoa haurrek bideratutakoa izan da. Jolaslekuak guneez aberats, atsegin eta erakargarria izan nahi du haur guztientzat, bertan libreki mugitu, jolastu, **25**, ikertu, harremanak izan eta amesteko aukera izateko.

<www.pasaia.eus> 2020ko uztailaren 22a. Egokitua

2. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

6. a) miatu
b) zehaztu
c) agortu
d) berritu

7. a) batez beste
b) hala nola
c) batik bat
d) hurrenez hurren

8. a) Halaber
b) Alderantziz
c) Bestela
d) Horrela

9. a) aldentzeko
b) aldarrikatzeko
c) aldatzeko
d) aurreikusteko

10. a) eskuratuta
b) araututa
c) bultzatuta
d) eraldatuta

11. a) ekoizpena
b) sailkapena
c) atzerapena
d) iraupena

12. a) erabilgarri
b) eramangarri
c) erabakigarri
d) eskuragarri

13. a) trukatu
b) garatu
c) urratu
d) neurtu

14. a) gogortzeaz
b) egokitzeaz
c) hausnartzeaz
d) sakontzeaz

15. a) Ondoren
b) Alabaina
c) Gaurkoz
d) Betiere

16. a) Agian
b) Bestetik
c) Hargatik
d) Azkenik

17. a) estutu
b) baztertu
c) gogortu
d) adostu

18. a) ukatzeko
b) zorrozteko
c) sustatzeko
d) agintzeko

19. a) bakartia
b) baliogabea
c) bestelakoa
d) bitartekoa

20. a) eskasa
b) berezia
c) ñimiñoa
d) hutsala

21. a) oinarri
b) arerio
c) burutazio
d) mailegu

22. a) ahotsa
b) ardura
c) ajea
d) algarra

23. a) bildutako
b) ezabatutako
c) erroldatutako
d) kokatutako

24. a) ekoizpen
b) hastapen
c) aurkezpen
d) luzapen

25. a) gogaitu
b) gozatu
c) gotortu
d) goratu

Oharrak

- Ondoren, **idazmenerako ariketa** duzu.
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten: **ez da zuzenduko irakurri ezin denik.**
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egokitasuna, zuzentasuna eta aberastasuna.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETA HORRETARAKO EMAN ZAIZUN APARTEKO ORRIAN.**

Gaia kontuan hartuta, **iritzia** eman behar duzu **herriko aldizkarian**, *Herritarren txokoa* sailean.
Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Azkenaldian gertatutako istripuak direla eta, Udalak herriko kale guztietan ibilgailuen abiadura orduko 30 kilometrora mugatzea erabaki du.

Herrian jende guztia ez dago ados Udalak erabakitakoarekin.

Herriko aldizkarian iritzia ematea erabaki duzu.

Esan Udalaren erabakiak zer ondorio ekar dezakeen, neurriaren alde edo kontra zauden eta arrazoitu esandakoa.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

■ **1. ariketa.** aukera anitzeko galderak.

■ Irakurgaia: «NEGARRA»

1.	C	2.	C	3.	B
4.	A	5.	B		

■ **2. ariketa.** hutsuneak bete.

■ Irakurgaia: «HAURREK ERABAKITAKO JOLAS-PARKEA»

6.	D	7.	B	8.	A
9.	B	10.	C	11.	D
12.	A	13.	B	14.	C
15.	A	16.	D	17.	D
18.	C	19.	C	20.	B
21.	A	22.	A	23.	D
24.	C	25.	B		